KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2024ko apirila - 248 zkia.



aek
23.korrika
HARRO HERRI
Mutrikun Argazkitan

Ander Albizu Urresti

Lau domina lepotik zintzilik

HONDAKINEN KUDEAKETAN PAUSU BERRIA • SASOI BATEKO SOIÑUAK (I)
MEMORIA ASTEA INSTITUTUAN • JULEN OÑEDERRA IKASKIDEAREKIN
NAIARA ERRAIZEKIN FISIOTERAPIAZ ETA GEHIAGO


apain
Mundu berri bat
MINDFULL TOUCH
Relax eta teknologia berriak elkartuta
Maiatzaren 13tik 17ra probatzeko aukera


ERDI-MAILA:
MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA
BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK
INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOETAKO TEKNIKARIA
ELIKAGAIAK ELABORATZEKO TEKNIKARIA
GOI-MAILA:
ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA
ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA
MEKATRONIKA INDUSTRIALA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOA ETA EGUZKI ENERGIA TERMIKOA
FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA:
ZIBERSEGURTASUNA ERAGIKETA-TEKNOLOGIEN INGURUNEETAN
Ate irekiak!
Eman izena!
LANBIDE HEZIKETA
maiatzak 16
17:00etan
Markina-Xemein | 94 616 90 02 | info@leartik.eus
www.leartik.eus
HETEL
Ikasgiltza
lea artibai
ikastetxea

Telefonoak

Osasuna

COVID-19 KORONABIRUSA

OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Alzheimer elkartea 943 29 71 18

Botikak

Lasuen-Elezgarai ..... 943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz ..... 943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar) 943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa ..... 943 60 70 48 /679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Kontsortzioa 943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 89 91 52
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua 943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua 943 60 71 37
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 944 333 333
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87

Iritzixa

Agurtzane Urriolabeitia

POTINETIK POTINERA

Azkeneko asteetan hainbat itsas-garraiok sortu duten titularrek hausnarketarako bidea zabaldu didate eta zuekin partekatu nahi nuke.

Martxoaren 26an, kontenedoreak garraiatzen zituen barkotzar batek Baltimor-eko Francis Scott Key zubiaren aurka talka egin eta zubia, domino piezak erortzen diren bezalaxe, uretara jausi zen. Munduko komunikabide guztiek gertakariaren berri eman zuten eta azken asteotan zubi horren berreraikuntzak suposatuko duen dirutza hizpide izan da. *MV Dali* kargaontziak Salvador Dalíren kuadroak baino ikusgarritasun haundiagoa sortu du. Orain amerikarrak daukaten boterea erakusteko prestatuko dira berriz ere zubia eraikitzeko milioi eta baliabide pila gastatuz.

Ea dirua beraien azpiegiturak berritzen gastatzen duten eta ez beste herrialde batzuk armekin hornitzen. Israeldarrei ematen ari zaien babesa ulertezina egiten zait. Eta are ulergaitzagoa egiten zait gizakion pasibotasuna errugabeen heriotzaren aurrean. Beste gauza batzuetarako ederki mugitzen gara ba!

Hau esanda, atxumarta bota eta beste itsasontzi batera salto egingo dut, Gabarrara, hain zuzen. A ze nolako zoramena piztu duen Athletic-en garaipenak. Gero andaluzak exajeratuak direla esango dugu. Guadalquivirreko haizeak oraingoan Kantaurira iritsi dira. Hori bai, mundu guztiarentzat agerian gelditu da Athleticzaleak planetan bakarrak direla, bai zaletasunean, bai nortasunean. Itzela izan da eta zaila izango da Bilboko ibaiertzeko irudia gure memoriatik ezabatzea.

Eskerrak Gabarra Bilboko uretan gelditu den. Bestela AEBko San Frantziskoko *Golden Gate* zubia kinka larrian egongo litzateke, Baltimor-eko karga-ontziak baino arrisku gehiago dauka eta.

Zientziak dio horrelako ospakizunetan 5 substantzia kimiko isurtzen dituela gure buruak. Bat oxitozina da, maitasunaren hormona. Bestea, dopamina, zoriontasunaren hormona. Ea apirileko egun hauek gure jaiotza tasa handitzeko ondo etortzen diren.

Dena dela, kuriosoa egiten zait ekitaldi batzuetarako zein azkar prestatzen garen eta beste batzuetarako zenbat pega jartzen ditugun. Esate baterako, jubilatuen baldintzak hobetzeko konzentrazioak, indarkeria matxistaren aurkakoak, bakearen aldekoak, osasun eta hezkuntza publikoaren aldekoak, etxebizitza duinaren aldekoak... Agian gabarra bereziren bat asmatu beharko genuke egoera haue-tarako.

Eta gaurko azken atxumarta *Aita Mari* ontziari bota nahi nioke, Mediterraneoan salbamendu misioak egiten dituen ontziari. Ezetz asmatu maiatzaren 4ra arte non dagoen? Bai, lagunok! Gabarra orain gutxi arte egon den toki berean, Bilboko *Itsasmuseum*eko kaian. Urteak eta urteak daramatza euren bizia arriskuan jartzen duten migra-tzaileei esperantza izpi bat eman nahian. Ontzi honetako langile eta bolondresek txapela kentzeko moduko lana egiten dute eta sarritan ez da euren lana aintzat hartzen. Aurreko egunetan ospa-kizun ugari izan dira Bilbo aldean. Pare-parean egonda ere, norbait akordatu al da *Aita Mari*taz?

Egunotan asko hitz egin da euskal futbolaren baloreez. Jarri gaitezen hausnartzen ze balore dauzkagun eta etorkizunean zeintzuk nahi ditugun. Utzi momentu batez gure bizitzako potinetan ibiltzeari eta bota dezagun zentzuaren aingura.

Argitaratzailea
Karenka Komunikazio Elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku
Tel. 635 748 393
e-posta aldizkaria@kalaputxi.eus
Webgunea: www.kalaputxi.eus
Bloga www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea Mutrikuko Udala

Kolaboratzaileak
Josu Larrañaga,
Inhar Mutiozabal
Tirada 2.200 ale
Lege Gordailua SS-787/01
ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI
Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak Mutrikuko Udalaren dirulaguntza jasotzen du:
Mutrikuko Udala

www.lurraldebus.eus
900 300 340

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:
www.kalaputxieus/garraioa

astelehenetik ostiralera

DB03	LEKEITIO - DONOSTIA						
Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00		
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25		
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30		
Donostia	(*) 7:55	11:30	14:30	19:30	---	(*) Unibertsitatetik	
DB03	**DONOSTIA - LEKEITIO**						
Donostia	8:00	11:00	(*) 14:30	18:00	20:30	(*) Unibertsitatetik	
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20		
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05		
DB04	**ONDARROA - MALLABIA**						
Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45	
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	22:55	
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15	
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---	

OSTIRAL GAUEAN Mutrikutik: **23:25; 01:15**.

DB04	MALLABIA - ONDARROA					(*) lanegun ostiraletan	
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	(*) 22:05	
Eibar	6:05	7:05	orduro	21:05	22:10	22:15	
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:20	22:30	
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40	

OSTIRAL GAUEAN Mutrikura heldu: **00:25**. (Eibarren -25 min.)

DB05	MUTRIKU - ZUMAIA						
Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25	
Deba	6:40	9:45	11:40	13:40	16:40	18:40	
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10	
DB05	**ZUMAIA - MUTRIKU**						
Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10		
Deba (35 min. zain)	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40		
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25		
DB06	**ONDARROA - SORALUZE**						
Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40
DB06	**SORALUZE - ONDARROA**						
Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03	LEKEITIO - DONOSTIA						
Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00			
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25			
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30			
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:10			
DB03	**DONOSTIA - LEKEITIO**						
Donostia	10:30	14:30	17:00	(ig) 20:30	(lr.) 21:00	(ig) igande/jai-egunak (lr.) larunbatak	
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50		
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35		
DB04	**ONDARROA - MALLABIA**						
Mutriku	(lr.) 7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	(lr.) 22:15	
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25	
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45	
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---	

LARUNBAT GAUEAN Mutrikutik: **23:25, 23:55, 01:55, 03:55, 05:55**.

DB04	MALLABIA - ONDARROA					(lr.) larunbatak	
Mallabia	(lr.) 6:50	7:45	orduro	19:45	20:45	21:45	22:00
Eibar	7:00	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00	22:15
Mendaro	7:35	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35	22:40
Mutriku	7:55	8:55	orduro	20:55	21:55	22:55	23:00

LARUNBAT GAUEAN Mutrikura heldu: **01:10; 03:10; 05:10; 06:10**. (Eibarren -25 min.)

DB05	MUTRIKU - ZUMAIA					(lr.) larunbatak	
Mutriku	(lr.) 8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10
DB05	**ZUMAIA - MUTRIKU**						
Zumaia	(lr.) 9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	(ig) 22:10
Deba (35 min. zain)	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23.25
DB06	**ONDARROA - SORALUZE**						
Mutriku	9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45	
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20	
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40	
DB06	**SORALUZE - ONDARROA**						
Soraluze	(lr.) 8:40	10:40	12:40	16:40	18:40	20:40	
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45	
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00	
Mutriku	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20	

www.euskotren.eus

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
BILBOTIK		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	8:29	22:29
Donostia	7:38	8:38	22:38

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
DonostiaTIK	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

DIKEA, PORTUA eta HERRIA

Mutrikuko EH Bildurentzat portua eta itsas eremuaren kontua gai konplexua izan da hasieratik. Duela 20 urte, Euskal Herritarrok-ek, Mutrikun arrantza jarduerari bultzada eman nahian begi onez ikusi zuen portuko plan estrategikoa ontzat hartzea.

Bitarteko urte luze horietan, EH Bilduk gai honekiko informazio eskaera behin eta berriz egin arren, Eusko Jaurlaritzaren aldetik ez da erantzun argirik egon. Tamalez, pasaden urtean Eusko Jaurlaritzaren jarrera ohikoa den moduan, udalarekin partekatu gabe, esleipen prozesua martxan jarri zuen. Egoeraren aurrean, dikea bere osotasunean amaituko zela onartu eta indarrak hurrengo faseetan jartzea erabaki genuen, herri batzarrean.

Dikeko obrak iraun duten bitartean, portuko proiektuaren kontra dagoen herri mugimendu batek deituta, herri galdeketa egin zen. Bide horretan, EH Bilduren erabakia herri galdeketa hori bultzatu eta parte hartzea izan zelarik. Azpimarratu behar, galdeketan 800 pertsonak parte hartu zutela.

Hilabete batzuk beranduago, obrak gelditu behar zituztela jakin genuen eta oraingo testuinguru berriaren aurrean, barne hausnarketa eta eztabaida ematea erabaki zen. EH Bildu barnean iritzi ezberdinak daudela kontuan izanik eta gaur egunera arte ekarri gaituen ibilbidea aintzakotzat hartuz, 2023an hainbat herri batzar egin ditugu Bildukideok gure herrirako zer nahi dugun eta zer ez gure artean eztabaidatu eta iritziak mahai gaineratzeko.

Bileretatik ateratako ondorioak oso argiak izan dira:

1. Dikea ez luzatzea.
2. Kirol portuari ez.
3. Turistifikazioa bultzatuko duen jarduerarik ez.
4. Piszina estaltzeari ez.

Honetaz gain, bileretan jasotako irizpidea herrira eta herritarrei begirako eremua bultzatzea izan da, hau da, inguruak herritarren aisialdirako egokiak izan daitezkeen jarduerak sustatzeko egokitzea. Gainera, aurretik aipatu bezala, dikea bere horretan bukatzea nahi dugu.

Orain arteko bideak ondorioztatu du, EH Bildu barruan, herri izaeraren inguruko eztabaidak ematen eta baldintzak sortzen joan behar garela. Esaterako, etxebizitza politika, turismo eredua, ekologia, etab. Udalari dagokionean eta EH Bilduren hauteskunde programan jasotakoari jarraiki, Bildukideok begi onez ikusten dugu herriaren iritzi nagusia zein den ezagutzeko, parte-hartze prozesua lehenbailehen abiatzea, herritarrok prozesuan erabakitakoa Eusko Jaurlaritzaren aurrean defendatzeko.

EH Bildu Mutriku

KORRIKA... AUZOLANA

Hilabete pasa ondoren eta orduko urduritasunak atzean utzita zorrak kitatzeko ordua iritsi da. Jarritako prebisioak gainditu ditugu, eta honakoan ere, zuoi esker izan da.

1980an lehenengo KORRIKA Arantzazutik atera zenean zeinek esango zigun 2024an 23. KORRIKAren lekukoak izango ginela!

Atzean gelditzen dira orduko zangotrabak eta garai ilunak, orain denek nahi dute argazkietan atera, asko ikasi dugu, eta eskarmentuz jantzita gatoz.

Eta honaino iritsi bagara, herritar, lagun, bizikide guztion lankidetzari esker iritsi gara: AUZOLANA. Aspaldian, batzuen ahoetatik sarriegi entzuten den esamoldea, (ene uste apalean, bat ez datorrena hitzaren mamiarekin).

Urtarrilean hasita AUZOLANean aritu gara KORRIKAren inguruan: astero bildu gara, ideiak eman eta zabaldu dira, herriko taldeekin bildu, egitarauak prestatu, KORRIKA txikia antolatu, txokolatea prestatu, pankartak eta kartelak ipini, kilometroak neurtu, markatu eta saldu... Ikusten ez den lan asko. Aitortu behar dut APARTEKOA izan dela KORRIKAren inguruan sortutako taldea, nekaezina, ideiaz betea, gogotsua...

ESKERRIK ASKO 23. KORRIKA ahalbideratu duzuen guztioi: batzordekide, ikastetxeetako guraso, ikasle, irakasle, laguntzaileei... herrigintzan, euskalgintzan diharduzuenoi... Udaletxeko euskara sailari... Parte hartu duten herriko elkarte eta talde ezberdin guztiei, Ametza tabernari eta KORRIKAren ilusioa zabaltzen lagundu duzuen guztioi. Horixe baita auzolana.

GORA KORRIKA, GORA AEK eta BIBA ZUEK!

Auro Ansorregi Altzibar
(Mutrikuko Korrika arduraduna)

HARRO HERRI MUTRIKU!

Harro herri Korrika!
Harro Mutrikuko herria, Mutrikuko haurrak, gazteak, helduak eta zaharrak.
Euskaraz jakin zein ez, denon indarrak batuta, har dezagun leku guztietan eragiteko konpromisoa.
Harrotasunez! Konplexuak gainetik kenduta!

Orro egin Mutriku, euskaraz eta harrotasunez!
Harro plazan, eskolan, etxean, online, kalean...
Bete ditzagun txoko guztiak euskaraz.
Eman ditzagun aurrera pausuak elkarrekin, espazio berriak irabazteko.
Hitzez eta ekintzez aldarrikatu dezagun!

Irri egin euskaraz! Irri egin bizitzari!
Egin irri eta izan herri!
Kristo Zulotik Arno bitarte,
uxatu ditzagun ekaitzak, umore onez, irri eginez!
Bihotzez handiak garelako!

Korri egin mutrikuarrok!
Euskararen aldeko mugimendu erraldoi honetan gure aletxoa jarriz!
Tipi-tapa korrika txikian, tipi-tapa 23.Korrikan!
Lekukoa eskuz esku pasatu eta kilometroz kilometro jarraitu.
Euskararen aldeko hautuan ehunka mila lagunekin bat egin.

Orro egin, irri egin eta harro herri Korrika!

Mutrikuko *Korrika Txiki*ko mezua

Kalaputxi aldizkariak irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira posta arruntez edo posta elektronikoz aldizkaria@kalaputxi.eus helbidera. Aldizkariak ez du zertan bere egin idatzien edukia.

EGIN DEZAGUN AURRERA PAUSU BAT HONDAKINEN KUDEAKETAN

2024 urtean produktu, zerbitzu eta ondasunen kontsumoa ohikoa da. Are gehiago, gehiegizko kontsumoan murgilduta gaudela esatera ere ausartuko ginateke eta horrek gero eta gehiago erostera bultzatzen gaitu. Izan ere, gizakiak gaur egun duen kontsumo ereduari eusteko bizi garena bezalako hiru planeta behar dira. Hau da, kontsumo eredua kolokan dago eta Lurrak nahikoa dela dio. Adibide bat jartzearren, plastikozko poltsa baten bataz besteko erabilera 15 minutukoa da, eta degradatzeko, ostera, ehundaka urte behar ditu. Horrela gertatzen da erabilera bakarreko produktu ia guztiekin. Argi dago egungo kontsumo eredua aldatzeko bidean pausuak ematen joan beharko dugula, gutxika-gutxika egoera irauli nahi badugu, behintzat.

Azken urteetan, gogoeta honekin loturik gero eta gehiagotan entzuten da ekonomia zirkularraren ideia. Funtsean, erabilitako materialei bigarren bizitza ematean datza ekonomia zirkularra. Honela, helburua produktuen bizi-zikloa luzatzea da, eta horrek, praktikan, birziklatzeari esker, hondakinen murrizketa dakar. Izan ere, produktuak berrerabiltzeak baliabide naturalen erabilera gutxitzen du, eta ondorioz, paisaiaren, habitataren eta biodibertsitatearen galera ere apalagoa da. Era berean, berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa ere eragiten du, aldaketa klimatikoa arintzearen mesedetan.

Hitz potolo asko aipatu ditugu aurreko paragrafo horretan. Baina, esaera zaharrak dioen moduan «hitz ederrak haizeak eramaten ditu» eta egoeraren larritasuna ikusita, ezinbestekoa da hitzetatik ekintzetara pasatzea. Baina, nondik has gaitezke? Zer egin dezakegu?

«Recysmart» proiektua

Mutrikuko Udalak eta Debabarrenako Mankomunitateak elkarlanean «Recysmart» proiektu pilotua martxan jarriko dute herrian eta ez, ez du mundua salbatuko, baina, geure txikitik eragiteko eta gauzak hobetzeko aukera aparta izan daiteke. Egitasmoari maiatzean emango zaio hasiera eta, gutxienez, urtebeteko iraupena izango du.

Proiektuaren helburua edukiontzi horiaren birziklatze-tasa hobetzea da, hau da, ontzi arinen kantitatea eta kalitatea handitzea. Izan ere, gaur egun oraindik askorentzat ontzi arinen edukiontzia plastikoaren edukiontzia da; baina, hori ez da zuzena. Edukiontzi horira bota daitekeena zehaztea, ordea, ez da erraza: ezin dira edozein motatako plastikoak bota eta plastikoa ez den beste material batzuk ere birzikla daitezke. Orduan, zer sailka dezakegu edukiontzi horian? Ontzi funtzioa duten produktuak. Hona hemen lagungarria izan daitekeen zerrenda:

- Plastikozko botilak
- Norberaren garbiketarako zein etxeko garbiketarako ontziak
- Erretiluak, potoak eta paketeak
- Janari-sareak (esaterako patatekin datozenak)
- Produktu sorta baten bilgarria
- Janarien eta edarien latak
- Aerosolak
- Aluminiozko bilgarri eta erretiluak
- Tapak eta txapak
- «Brick» estiloko ontziak (tomatearenak, esnearenak...)
- Blisterretako plastikoa (pila paketearen plastikoa, bonbila paketearena...)
- Egurrezko eta kortxozko ontziak
- Kortxo sintetikoa
- Poltsak eta produktuen babesgarriak
- Poliestirenozko bilgarriak
- Plastikozko poltsak

Zertan datza ekimena?

Maiatzean hasita, Mutrikuko ontzi arinen 24 edukiontzien bi ahoetako batean gailu adimenduna duen dispositiboa jarriko da. Gailu horrek ontzi arinetako batzuk identifikatzeko gaitasuna du, zehazki, plastikozko botilak, latak eta «brick» edukiontziak. Proiektuan parte hartu nahi duen erabiltzailea identifikatu egin beharko da, txartel edo «app» bidez, txartela edo mugikorra gailura hurbilduz. Identifikatu ostean, gailua dagoen zulotik banan-banan botako dira hondakinak, hau da, ontzi bat birziklatu ondoren berriro ere identifikatu beharko da beste poto bat sailkatzeko. Ontzia behar bezala sailkatzean argi berdea agertuko da, ondo birziklatu den seinale, eta herritarrek



Martxoaren 1ean Txurruka Plazan egindako karakterizazioan ontzi arinean agertutako zaborra.


Aurkezpen saioetako antolatzaileak herritarrei proiektua azaltzen.

puntuak eskuratuko ditu. Honela, puntu gehien eskuratzen dituzten erabiltzaileen artean hilabetero Mutrikuko produktuz osatutako saskia banatuko da.

Funtzionamenduari dagokionez, esan beharra dago orain arte bezala jarraitzeko aukera eskaintzen duela ekimenak. Hau da, parte hartu nahi ez duenak aukera izango du ontzi arin guztiak batera birziklatzeko. Hala ere, mutrikuar guztiok parte hartzera animatzen zaituztegu, ezinbestekoa baita guztion konpromisoa bidea hobetzen jarraitzeko.

Zergatik Mutrikun?

Iaz Mutrikun 163 tona ontzi arin jaso zituen Mankomunitateak, hau da, biztanleko 29 kilogramo ontzi arin birziklatu ziren. Datu horiek Debabarrena eskualdeko datu onenak dira, beraz, zorionak mutrikuar guztioi! Pozgarria da Mankomunitateak Mutriku aukeratu izana herri mailako proba pilotua martxan jartzeko.

Dena den, bide luzea dago oraindik egiteko. Izan ere, aipatutako datuak Gipuzkoako bataz bestekoaren azpitik daude. Beraz, epe laburrean Gipuzkoako herri onenen artean Mutriku agertzea da proiektuaren jomugetako bat.

Gailu adimenduna maiatzean jarriko bada ere, jada kontzientziazioa indartzeko asmoz hainbat ekintza egin dira. Hain zuzen, joan den martxoaren 1ean, Goiko plazan, edukiontzi horiaren karakterizazioa egin zen. Hau da, herriko edukiontzi hori bat

“Zaborrik onena, sortzen ez dena; baina sortzen bada, birziklatzea ezinbestekoa da.

irauli eta sailkatutakoa aztertzeko aukera izan zen. Bertan, argi geratu zen ontzi arinen edukiontzira beste edukiontzietan birziklatu beharreko materiala botatzen dela, esaterako papera eta kartoia, errefusa edo organikoa.

Bestalde, herritarrei egitasmoa azaltzeko asmoz, martxoan zehar Mutrikuko puntu ezberdinetan informazioa eskaini zen. Antolatzaileen arabera, adin guztietako jendea hurbildu da informazio eske. Orokorrean, oso harrera ona izan du aurkezpenak eta ekimen honen bidez herri-harrotasuna handitzea espero da.

Horrez gain, apirilean zehar herritarren ekarpenak jasoko dira Udalean eta, era berean, ikastetxeetan ere kontzientziazioa landuko da.

Argi dago zaborrik onena sortzen ez dena dela, baina sortutakoa birziklatzea ezinbestekoa da. Horrela, maiatzaren hasieran proiektuarekin bat egitera animatzen zaituztegu mutrikuar guztiok!

Esan gabe doa, zalantzaren bat duenak dei dezala Mutrikuko Udaleko ingurumen zerbitzura (943603244) edota idatzi dezala energia@mutriku.eus helbide elektronikora.

Jone Osinalde Mutrikuko Udaleko ingurumen teknikaria
Markos Isasi Debabarrenako Mankomunitateko ingurumen teknikaria



Ontzi arinen edukiontzian ezarriko den gailu adimenduna.


Martxoaren 1ean Txurruka Plazan egindako karakterizazioan ontzi arinean agertutako zaborra.

SOA taldeak aurkezpen-diskoa

SOA taldeak lehenengo diskoa argitaratu du: «Suari so». Musikari eta letrari pareko garrantzia emanda muturreko Metala aldarrikatzen dute. Axular Arizmendik zuzenduta AME estudioan grabatutako diska osatzen duten hamaika abestiak plataforma digitaletan entzun daitezke, baita **https://soamusikaz.bandcamp.com/album/suari-so** webgunean ere.

Boskoteak honela aurkeztu du bere burua: «*Mutrikutik datorren metal galarrenak Euskal Herria luze-zabalean astintzera doa. Errukirik gabe! Beti metalean, estiloari etiketarik jarri gabe eta geure burua mugatu gabe. Gure abestietan metalaren alderdi askori heltzen diegu. Entzuleak metalzaleak izan zein izan ez, musikazaleei gonbitea egin nahi diegu gure letrei erreparatzeko; beraien aurrean egonda, aitzakiarik ez ulertzeko. Musikarekin bezala, adi dagoenak hitz zorrotzak aurkituko ditu.Jendartean egunero-egunero bizi ditugun bidegabekeriei hitzak ipintzen dizkiegu, begirada eremu batean eta bestean jarrita. Estiloaren mugen barruan, taldekideok argi dugu geure helburua: zuzenekoetan gozatzea eta inguratzen gaituztenengana ailegatzea*».

SOA taldea Mutrikuko Rock Kolektiboaren baitan sortu zen 2022 urtean, Kraussk, Hira, Didar, Muzak eta Hondar taldeetatik etorritako musikariak elkartuta. Taldekideak: Jagoba Idurri Urrutia Iturraspe (ahotsa) lekeitiarra, Ibon Aginaga Imaz (gitarra), Jon Joseba Azpiazu Pazos (gitarra), Aitor Sagarmendi Freire (baxua) eta Aitzol Collazo Mendizabal (bateria) mutrikuarrak. Diskoan kolaboratzaile mutrikuarrak ere izan dituzte: Angel Laguna, Larraitz Ormaetxea eta Jon Antxustegi.

Abestiak: 01. (I)hesi 02. Zapalduen matxinada 03. Paralisia 04. Lerde pozoia 05. Ase ezin 06. Enbata 07. Suari so 08. Gortuak 09. Odolaren hierarkia 10. Hitzen gotorlekua 11. Hilzori I



Aitzol Collazo Mendizabal (bateria), Jon Joseba Azpiazu Pazos (gitarra), Aitor Sagarmendi Freire (baxua), Jagoba Idurri Urrutia Iturraspe (ahotsa) eta Ibon Aginaga Imaz (gitarra).



Leire Sagarmendik Miren Freirek egindako pinturan oinarrituta egindako diseinua.

RAFA URANGA PODIUMAREN GORENEAN

Apirilaren 6an Madrilgo Jarama zirkuitoan ospatu zen Euskal Herriko lehen lasterketa Maxiclassic kategorian. Bertan Espaniako koparen barruan ospatutako lasterketan 44 gidarik hartu zuten parte Espainia osoko tokietatik etorriak. Rafak lortu zuen Euskal Herriko gidaririk azkarrena izatea, Jordi Espuña (kataluniarra) eta Unai Arregi (hernaniarra) atzetik zituela. Lasterketa berean Ipar Eremuko bigarren, eta Estatu mailako 15garren sailkatu zen. Nahiz eta lehenengo entrenamendu kronometratuetan erorketa bat izan eta motorra kaltetuta geratu, bertan zeuden beste gidarien eta emaztearen laguntzarekin lasterketa hasteko ordu bete falta zela konpondu zuten eta lasterketan parte hartzea lortu zuen. Hurrengo lasterketa, Lleidako Alkarras zirkuitoan, uztailaren 21ean. Estatu zabaleko zirkuituetan gure herriaren izena ospetsu egiten diharduen gidari mutrikuarrari zorterik onena opa diogu. Hurrengo lasterketetan ere izango ahal du bere maila erakusteko aukerarik!



MUTRIKUKO TANATORIOA
Iriagirre z/g
Albia
EHORZKETA ZERBITZUAK
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es



ENEKO SAGARMENDI TXAPELDUN

Zarauzko Aritzbatalde pilotalekuan jokatu zen martxoaren 31n Euskal Pilota Egokituko Sari Nagusia, eta Eneko Sagarmendik Jurdan Arakistain zestoarra bikote zuela irabazi du finala 25-13ko emaitzarekin Divassonek eta Huegunek osatutako bikotearen aurka.

Enekoren esanetan, markagailuak besterik adierazten badu ere partidua gogor joan zen eta meritu handia eman zion garaipenari. Garaipenak hamalaugarren txapela janztera eraman zuen Eneko. Eta garaipen berezia aita hil berriari eskaini zion. Pilota egokituaren historian marka ederrak uzten ari da mutrikuarra. Bejondeiola!



BANDERA BERRIA MUTRIKURA

Mutriku Arraun Taldeko gazte mailako neskek Gipuzkoako Bandera lortu zuten Pasaiako badiako uretan apirilaren 14an, Tolosaldearen, San Pedroren eta Hernaniren aurretik. Estropada berean, kadete mailako neskak hirugarren tokian sailkatu dira.

Bandera lortuta, hurrengo urratsa Euskadiko Txapelketa izango da, datorren astean. Hurrengoa, gauzak ondo joanda, Espainiakoa.

Gauzak datozen moduan datozela ere, neska mutrikuarrek haundia egin dute aurtengoan, eta etorkizunera begira ilusioa piztu dute. Duela urte batzuk arraunean hasi ziren neska haien jarraitzaileak dira aurtengoak, eta horien ondoren ere izango dira neska gehiago bandera berriak ekarriko dituztenak. Bejondeiela!



HEZKUNTZA JARDUNALDIETAKO SAIO BERRIAK

Udalak sustatutako Hezkuntza Mahaiaren ekimenez antolatu ziren Hezkuntza Jardunaldiak martxoan, apirilean eta maiatzean zehar hainbat saio programatuta. Saio guztiak haur eta nerabeen heziketan bidelagun suertatzeko, eta haur eta nerabe horien guraso eta hezitzaileei laguntza emateko.

Orain artean «Beldurrak haurtzaroan» eta «Mugak haurtzaroan» landuta, maiatzean honakoak hartuko dira aztergai eta langai:

«Nerabeen garrasia» nerabeen osasun mentala aztergai hartzen duen liburuaren aurkezpenean Telmo Lazkanok eta Maitane Ormazabalek nerabeen osasun mentala hobetu ulertzeko eta sortzen diren arazoetan laguntzeko giltza batzuk eskainiko dituzte.

«Mugikorrak eta interneten erabilera lehen hezkuntzan» saioan Nerea Mendizabalek haur zein gazteek teknologia berrien erabilera modu kontzientean eta osasuntsuan egiteko ibilbide baten aurkezpena egingo du. Gurasoei maiz urrun gertatzen zaizkien gaietako bat da teknologia berriena, eta horretan etxeko gazteenei bidea egiten laguntzeko estrategiak eskainiko dira gurasoentzat eta hezitzaileentzat. Maiatzeko bi saio hauekin aurtengo jardunaldi-zikloa bukatuko da, eta Hezkuntza Mahaiak lanean jarraituko du mutrikuar gazteenak beren langaietan hartuta.

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan



DEBABARRENA GOURMET EKIMENA

Eskualdeko zazpi jatetxetan eskainiko da «Debabarrena Gourmet» menua, zazpi platerek osatutakoa: aperitiboa, bi hasierako, bi plater nagusi (arraina eta haragia) eta bi postre. Eibarko *Baratze Gourmet*, Elgoibarko *Belaustegi Baserria*, Itziarko *Kanala*, Ermuko *Mendiola*, Mutrikuko *Piperren Txokoa* eta *Pikua* eta Soraluzeko *Txurruka* jatetxeetako sukaldariek prestatutako platerez osatuta egongo da menua, 60 euro balioko duena. Gurean, Santi Rios «Piperrek» eta Luis Alburquerquek eskainiko dituzte beren gutiziak.

Apirilaren 22an hasi eta maiatzaren 5era bitartean egongo da martxan ekimena. Interesa dutenek aurrez telefonoz hartu beharko dute mahaia.

Informazio gehiago: https://www.debabarrenaturismo.com/eu



GIPUZKOAKO BERTSOTAN 24

Bertsolari Txapelketako sailkapen faseko kanporaketa saioetako bat jokatuko da Mutrikun maiatzaren 10ean, arratsaldeko zazpietan Zabielen kultur etxeko ganbaran. Parte hartuko duten bertsolariak:

Ane Peñagarikano Leiva (Zarautz)
Iñigo Gorostarzu Etxebeste «Etxorde» (Berastegi)
Izarne Zelaia Arratibel (Donostia)
Jon Mendiluze Muka (Irura)
Josu Ibarguren Elosegi (Oiartzun)
Manex Astigarraga Bergara (Deba).

ANAIARTEKOEN LAGUNKIDETZA BAZKARIA

Aurten ere, iaz bezelaxe, ekainaren 15ean Anaiarteko bazkideen urteko bazkaria egingo da herriko frontoian. Bazkari goxoa dastatzeaz gain, dantzatzeko eta kantatzeko aukera ere izango da bertan.

Gainera, aurtengoan Anaiarte abesbatzaren 25. urteurrena ospatzen ari direnez, bazkalondoan omenalditxo ondo merezia egiteko aukera paregabea ere izango da.

Bazkari txartelaren prezioa 25 eurokoa da eta apirilaren 24tik aurrera eskuratu ahal izango da Anaiarteren lokalean. Bulegoa zabalik egongo da astelehen, eguazten eta barixakuan 11:00etatik 13:00etara.

Amaiarte Biltokiko zuzendaritza batzordeko kideek bazkide guztiak animatzen zaituztete apuntatzera, egun eder bat pasatuko duzue eta. Animatu eta eman izena!



ERRIGORAKO PRODUKTUAK

Nafarroa hegoaldeko baratzetako produktuak eskuratzeko Eskutik eskura 2024 kanpaina abiatu zen otsailaren bukaera aldera, eta orain eskatutako gutiziak jasotzeko data dator.

Ohikoa denez, produktuak **Kalaputxiren lokalean** jaso ahal izango dira **maiatzaren 15ean**, arratsaldeko **18:00-20:00 ordutegian**.

Gogoratu behar da egindako erosketa horren zati bat Nafarroako hegoaldeko euskalgintzari zuzenduko zaiola euskararen sustapenerako.



ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)



ZINEA


ETERNAL SUNSHINE OF THE SPOTLESS MIND

Batzuek uste dute bizi izandako esperientziek egiten gaituztela garena. Beste batzuek, berriz, nahiago izaten dute oraina bizi, iragana ahaztuz, atzera begiratu gabe.

Film honek triste dagoen mutil bat aurkezten digu, tristura horren jatorria zein den ez dakiena. Bere oroitzapenak tartekatuko dira pelikulan zehar, iraganean hartutako erabakiek orainarekin egiten duten talka erakutsiz. Pixkanaka, bere sentimenduak ulertuz joango da, ile koloreak aldatu ahala.

Iraganean egindakoa ez dago aldatzerik. Atzera begiratuz, ordea, unean ekiteko zentzua bilatzea posible da. Bertatik ikasiz. Sentituz. Gogoratuz.

«Betirako argia oroitzapenik gabekoentzat»





FITXA TEKNIKOA

Zuzendaria: Michel Gondry

Gidoia: Charlie Kaufman, Pierre Bismuth, Michael Gondry

Aktoreak: Jim Carrey, Kate Winslet, Kirsten Dunst, Tom Wilkinson, Mark Ruffalo, (...)

Urtea: 2004 **Iraupena**: 1 h 48 min

LITERATURA


Hamahiru ipuin

Luisa Carnés (Itzulpena: Danele Sarriugarte)

Luisa Carnés idazlea —hainbatentzat 27ko belaunaldiko ahaztutako idazleetako bat— Madrilen jaio zen 1905 urtean. Hogeita hamalau urte zituela, 1939 urtean, gerra zibila amaitu zenean, Mexikora erbesteratu zen. Bere larruzko poltsa soilik hartu zuen bidaiarako: barruan bere ipuinak zituen.

Hamahiru ipuin, izenak berak dioen bezala, hamahiru ipuinek osatzen duten bilduma da. Ipuinak taldeka bana daitezke gaiaren eta garaiaren arabera. Hainbat dira jorratzen diren gaiak: gerra, gerraostea, landa eremuko bizitza, erbestea, errepresioa... Ipuin gehienek, gainera, badute beste ikuspuntu bat: emakumeen figura inguru horietan guztietan. Fikzioa da, garai hartan bizi eta sufritu zuen emakume baten begietatik ikusiriko errealitate dosi handi batekin.

Euskararako itzulpena Danele Sarriugarteren eskutik datorkigu, eta fin aritu da itzultzailea, Carnés-en hitzak zintzo ekarrita euskarara, beren esentzia eta goxotasuna galdu gabe.




ZELAIETA JATETXEA
Olatz auzoa · Mutriku · 943604595
zabalik asteburuetan
eta jai egunetan

Ander Albizu Urresti (2002)

LAU DOMINA LEPOTIK ZINTZILIK

Mutrikuarrak lau domina lortu ditu Espainiako Txirrindularitza Paralinpikoko txapelketan: urrezko bi domina, banakako jazarpenean eta Scratch proban; zilarrezko bat, Omnium proban; eta brontzezko bat, Taldekako Abiaduran.

Otsaileko azken astean, 23tik 25era, Madrilen izan zinen eta lau domina lortuta bueltatu zinen...

Bai, hala da. Otsaileko azken asteburuan Madrilgo Galapagar herriko belodromoan jokatu zen Espainiako Ziklismo Paralinpikoko Txapelketan eta, 23 urte azpiko Pistako parte hartuta, lau domina eskuratu nituen. Bertan, hainbat proba burutu genituen: Jazarpen froga (16 buelta, guztira lau kilometro), Taldekako abiadura (hiru taldekidek osatzen dute froga), 200 metroko proba (hiru buelta lasai eman ondoren azken 200 metroak ahalik eta azkarren egitea), Kilometrokoa (lau buelta ahalik eta azkarren), eta, azkena, Scratch proba (iraupen proba, non txirrindulari guztiek aldi berean hartzen duten irteera, eta irabazlea helmuga gurutzatzen lehena den). Jeneralak Omnium du izena. Azken horretan bigarren gelditu nintzen; urreak, Jazarpenean eta Scratch probetan lortu nituen. Taldekakoan, aldiz, hirugarren egin genuen.

Bi egunetan burutu zenituzten proba guztiak...

Bai, egokituen probak larunbatean eta igandean egin genituen. Horien artean sailkapen ezberdinak egiten dituzte elbarritasunaren arabera. Ni C5 mailan kokatzen naiz; C hizkiak bizikleta adierazten du, eta zenbakiak maila. Bost zenbakian kokatzeak ezgaitasun mailarik txikiena adierazten du. Nire ezgaitasunak ere badu izena: hemiparesia (gorputzaren erdia mugitzea zailtzen duen baldintza neurologikoa da). Jaiotzatik daukat eta gorputzaren ezkerraldean dauka eragina nire kasuan. Alegia, ezkerraldean gihar tonu txikiagoa daukat eta atal horien garapena ere txikiagoa da. Ordea, nire elbarritasuna ez da muga bat izan kirolean aritu eta aurrera jarraitzeko. Ingurukoek asko lagundu naute. Egia esan, ez naiz nire mugen jabe izan; futbolean ere atezain izan nintzen eta taldean bat gehiago sentitzen nintzen.

Tolosa Futbol Klubeko partaide zara, oker ez bagabiltza...

Bai, nire taldea hori da. Taldeko kamiseta jantzita entrenatzen dut, bai belodromoan baita bideko bizikletarekin ere. Espainiako txapelketara euskal selekzioaren izenean joan zaitezke, baina baita taldearen izenean ere; ez zaude derrigortua selekzioaren izenean parte hartzera. Hain zuzen nire taldea Tolosa da, eta futbol taldearekin bat egina dagoenez, bada, horregatik izen hori.

Noiz eta nola hasi zinen pedalei eragiten? Zerk bultzatuta?

Futbolean oso gazte hasi nintzen. Kadete mailara heldu nintzenean hor utzi nuen futbola; nekatuta eta pixka bat erreta, egia esan. Eta nola aste bukaera eta oporretan aitarekin bizikletan ibiltzen nintzen, bada, horretan jarraitzea erabaki nuen. Aitari nire asmoak azaldu ondoren ekin nion bide berriari. Horretarako bizikleta ongi prestatu beharra nuenez aitak ezaguna zuen Tolosako biomekaniko batengana eraman ninduen, txirrindularitza egokituan aditua bera. Egun hartan animatuta hastea erabaki nuen. Baina, baldintza bat jarri zidaten: txapelketetan parte hartu aurretik, urtebetean sikiera, entrenatzen soilik igarotzea. Eta, noski, horrela egin nuen. Urtebete pasatu ondoren hasi nintzen izena eman eta nire ezgaitasunaren agiriak aurkezten. Aipatu dudan bezala, ezgaitasunaren mailaren arabera kokatzen zaituzte kategoria batean edo bestean. Horretarako medikuen epaimahai baten aurrean aurkeztu eta beraiek kokatzen zaituzte maila jakin batean. Alegia, maila edo kategoria hori Espainian bakarrik onartzen dute, Europa edo mundu mailan sailkatzeko beste irizpide batzuk baitituzte. Nik, Espainiatik kanpo Portugalen bakarrik hartu dut parte, eta, bertan Espainiako maila bera onartu zidaten.



Zenbat urte daramazu bizikleta gainean?

Hamalau bat urterekin hasi nintzen bizikletarekin jolasean, baina, serio hemetzortzirekin ekin nion. Kirol honek asko eskaini dit; egun aldrebes bat egun eder bihurtu dezake, baina aldi berean, egun eder bat egun aldrebes bihurtu dezake. Hala ere, aipatu behar dut gehiago ematen duela kendu baino;

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

Camping
Galdona
JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria
eguneko menua daukagu
Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

esaterako, nire kasuan, estresa askatzeko eta batzuetan eguna konpontzeko.

Nolakoak dira zuen entrenamenduak?

Belodromoan burutzen ditugunean astean hiru edo lau aldiz entrenatzen dugu. Ordu erdiko serieak burutzen ditugu, batetik besterako tarteetan atsedena hartuz. Denboraldia urrian hasi eta otsaila bueltan bukatzen dugu. Neguko entrenamenduetan, eguraldia dela eta, Donostiara joatea asko kostatzen da. Horretarako nahiko burugogorra izan behar zara: diziplinatua hain zuzen ere. Horrez gain, bideko bizikletan ere aritzen gara indarra hartzeko eta egoera fisikoa hobetzeko. Asko laguntzen du horrek maila igotzen joateko. Bestalde, izan ditudan istripuak bidean izan ditut; azkena, aurreko larunbatean. Belarri atzean hartu nuen kolpea beste baten bizikleta gainera erori ondoren. Horrelakoak ohikoak dira, baina ez gaude horretan pentsatzen, bestela ez ginateke bidera aterako.

Aipatu behar dut erabiltzen ditugun jantziak ere bereziak direla, egokituak daudela bidean zein belodromoan ibiltzeko: ahalik eta abiadura azkarrena hartzeko jantziak dira: kaskoa, arropa, oinetakoak... Eta gure gorputzaren jarrera ere asko zaintzen dugu. Gainera, teknikak, kirol guztietan bezala, izugarrizko garrantzia hartzen du txirrindularitzan. Gure entrenatzailea den Emaitz Eizagirrek asko lagundu digu horretan. Momentuan taldean hiru lagun gaude eta oso gustura aritzen gara.

Aurrera begira zeintzuk helburu dituzu?

Ez dut helburu zehatzik. Izan ere, norberaren denbora-markak hobetzea da helburua. Espainia mailako bideko bizikleta txapelketa dugu ate joka, hain zuzen ere maiatzean burutuko dena. Horra begira gaude orain momentuan. Eta, aurrerantzean etorriko den guztiari esku zabalik egingo diogu harrera. Oraingoz, helburuak epe motzera jarri ditut. Teknikoki hobetzea da nire nahia, denborak hobetzen joan eta mailaz igo poliki-poliki. Nire hasierako bi urteak nahiko gogorrak izan ziren, eta orain hasi naiz emaitzak ikusten. Lana eginez lortzen dira aurreneko postuak. Iazko urtean bigarren postuak lortzera heltzen nintzen, baina ezin lehen posturik harrapatu: «eterno segundon» ezizenez bataiatu ninduten edo gintuzten. Eta, orain izugarrizko poza daukat lau domina hauek lortuta, eta espero dut maiatzeko txapelketan beste pare bat ekartzea; hori nahiko nuke behintzat. Espainiako txapelketan ez dago maila handirik eta Europarako ez nuke mailarik izango. Hala eta guztiz, oso pozik nago egin dudan garapenarekin. Une txarrak ere bizi izan ditut; ordea, horiei aurre egin diet eta hemen jarraitzen dut, poliki baina gorantz igotzen. Alde batera hainbat gauza utzi behar izan ditut kirolari eskaini ahal izateko, baina ez naiz damutzen. Adin honetan ohikoa da lagunekin parrandak egitea edota afariak: nik askotan ezetz esan behar izan diet nekeak gainezka eginda. Kirol oso polita da.

Zerbait aipatu nahiko zenuke?

Entrenatzaileari eskertu nahiko nioke bere arduraldia. Eta taldea ere ezin utzi aipatu gabe, daukagun giroa ezin hobea baita. Asko laguntzen diogu elkarri, eskerrak! «Txiringito team» hori da askotan aipatzen duguna. Azken txapelketan, Scratch proban, Madrilen hain zuzen ere, bizikleta gabe gelditu nintzen eta Europako txapeldunordeak berea utzi zidan; bost minutuan nire neurrira ipini, probara irten eta urrea lortu nuen. Benetan, eskertzekoa da taldekideen laguntza. Aldiz, Omniumeko proban matxuratutako bizikletari adi egon nintzen eskulekua noiz irtengo bere lekutik; horregatik ezin izan nuen lehen postua lortu. Bestalde, familia eta lagunak ere aipatu nahiko nituzke; beti baitaude nire ondoan laguntzen.







SASOI BATEKO SOIÑUAK (I)

Gaurko Mutriku ez da orain urte batzuetakua. Herrixa aldatzen dijua, etengabe: etxiak, jantzixak, komunikatzeko moduak... Ikusten deguna ez da lehengua, ezta usaintzen deguna ere. Eta, kalian barruna guazela, entzun geinkena ere oso desberdiña da. Goguan al dakazuz sasoi bateko soiñu, zarata eta hotsak?

Raymond Murray kanadiarrak, 1970eko hamarkadan, soundscape 'soiñu-paisajia' hitza sortu zoan; bi hitz doz oiñarrixan: sound 'soiñua' eta landscape 'paisajia'. Hiru soiñu-talde hartzen ditxu kontzeptu horrek: naturak sortutakuak, gizon-emakumiok egindakuak eta erremintxek ateratakuak. Gauzak hola, soiñu horrek era askotakuak izan leikez: hotsak, zaratak, abotsak, txillixuak eta abar.

Abisuak eta kaleko saltzailliak

Mutrikuko kale-garbitzailliek kornetia erabiltzen zeuen 1927. urtian. Goizero, zakarrak batzera pasatu aurretik, ematen zeuen abisua, *recogiendo las basuras que los vecinos, en sus correspondientes cajas, al toque de bocina o corneta, tengan dispuestas para depositarlas en el carro*.

Pregoneruak ere sasoi bakoitzian bere abotsa euki zoan: danborra edo kornetia. Joaldi kopuruak bereizten zoan emango zoan mezua: joaldi bakarrak partikularren abixua zakarren, *pataterua* edo *naranjerua* etorriko zala, esaterako; bi joaldik alkarte edo soziedaden baten abixua; hiru joaldik, berriz, udalak agindutako pregoia.

Kaleko saltzaille batzuek euren kasa ematen zeuen abixua. Txistu soiñu berezixa entzundakuan mutrikuarrek bazakixen zorroztaillia –*el afilador*– herrixan zauana, eta laban, kutxillo, gureiza motzak zorrozteu zeikezela. Beste saltzaille asko agertu zeikezen, edonoiz: kinkillerua (herririk herri zabillen saltzaillia, zartagiñak, antiojuak, titxariak...), lapiko konpontzaillia, sustantzierua –*el sustanciador*– (txarriki zatixak egosialdi baterako lagatzen zitxuana dirutxo baten trukian)...

Herriko arrain-saltzailliak andrazkuak izaten ziran, eta beuren jeneruaren berri ematen entzun zeikezen.

Herriko toki batzuetan ixa beti egoten zan girua eta hizketarako aukeria: Goiko plazan, Beheko plazan, Atxukalian... Bista ederreko azken toki hortan maiñelak batzen ziran. Goizian goiz bi seiñeruak han entzungo genduzan, batzuetan zataraka ere bai, itsasuari neurrixa hartu eta itsas eguna edo bandera-eguna ete zan erabakitzen. Itsaso ona egon ezkero, handik abiatuko ziran arrantzaliak esnatzera, txillixoka. Beste ordu batzuetan, ez zan arrarua maiñelak ikustia harri latzezko petrillian itsasorako labanak zorrozten.

Arrantzaliei abisuak emateko *bozinia* erabilli izan da. Itsaso haundixa bazan, talaixeruak hiru olatuen osteko barealdixaren berri ematen zixuen barkuei bozinia jota. 1834an Kofradixak 20 errial gastatu zitxuan, *por una vozina para el talayero*. Itsasuan laiño itxixa zauanian, alperrik ziran banderak eta keia, eta holakuetan laguntza haundikua zan bozinia. 1798ko ilbeltzaren 13an, esaterako, bozinia erabilli zeuen itsasuan zozen arrantzaliei laguntzeko, *por el gasto que hicieron los hombres que el dia 13 de enero salieron con lancha a hacer llamada con vocina a causa de la niebla que havia*.

Tabernen ordutegixa eta gaua

Tabernek gure herrixetako giruaz gaiñera bertako soiñua ere aldatzen deue. Kantuak, barre-algarak, eztabaidak... Bai taberna barruan, bai inguruan, soiñu ekosistema oso bat sortzen da. Gizaldirik gizaldi aldaketa haundixak izan ditxu Mutrikun tabernak eta kafetegixak ixteko ordutegixak.

1747. urtian gabeko zortziretan ixten zitxuen tabernak neguan, eta bederatziretan udan, *que ningun dia las tengan haviertas despues de las ocho oras de la noche, en el ymbierno, y las nueve en el berano, pena de 500 mrs*.

1804an, berriz, etxeratze-agindutik egunsentira arte itxitxa egon bihar ziran: *que ningun dia las tengan abiertas despues de la queda, ni las habran hasta que sea de dia pena de 4 reales por cada vez*.

Eta 1867xan gabeko hamarretan, *las tabernas publicas de vino, aguardente, chacoli y sidra se cerrarán a las diez de la noche*. Ordutegi horretatik kanpo baten bat harrapatu ezkero, isuna jarriko zixuen bai taberna-jabiari, bai eta bezeruei ere.

1897ko ordenantzek taberna eta kafetegixen ordutegixak bereizten ditxue: *Las tabernas y sidrerías se cerrarán precisamente á las diez de la noche desde 1º de Octubre á fines de Mayo y á las once en los meses restantes; y los cafés a las once de la noche desde 1º de Octubre hasta fines de Mayo y á las doce en los meses restantes*.

XIX. gizaldi amaierako ordenantzek gabeko zaratak debekatzen zitxuen: *Se prohibe en general durante la noche todo ruido de cualquiera clase así como también las canciones y voces estrepitosas que puedan perturbar el sueño ó la tranquilidad de los vecinos*.

1918ko abuztuaren 8xan Mutrikuko udalak erabaki zoan tabernak gabeko 11:30etan itxi bihar zirala eta gabeko ordu batian kafetegixak: *acordó el cierre de las tabernas, sea en lo sucesivo a las once y media, y a la una los cafés, no permitiendo ningun canto ni barullo en dichos establecimientos ni en las calles, desde el cierre de las tabernas*.

1919ko abenduaren 1ian, berriz, beste hau erabaki zoan udalbatzak: urritxik maiatzera tabernek eta sagardandegixek gabeko 11etan itxiko zeuen, eta gabeko 12xetan kafetegixek; gaiñerako hillabetietan tabernek eta sagardandegixek 12xetan eta kafetegixek ordu batian.

Gabaz bi interes desberdin egon zeikezen aurrez aurre: batzuek isiltasuna billatzen zeuen, atseden hartzeko eta bixaramunian lanerako prest egoteko; beste batzuek, berriz, parrandarako eta jai-girorako momentu aproposa zala pentsatzen zeuen.

1804an, agindu bikoitza eman zan: batetik, partillia ezin zeikela banatu gabaz, *que toda la gente de mar se retire de las partijas a la hora de la queda, pena de dos reales de vellon de cada uno por cada vez, y 4 reales al dueño de chalupa o maestresa que pasada dicha hora los tubiese en casa*. Eta, bestetik, gabaz, arraiña garbitzen zeuen andrak ixillik ibilli bihar zirala, *que las mugeres y mozas que van a limpiar el pescado para los arrieros y escabeche no anden de noche por las calles, sino que estén cada una en su puesto sin apartarse de las demas compañeras, ni anden cantando, ni metiendo bulla, pena de dos reales de cada una*.

Ez deu ematen agindu hori fin-fin betetzen zanik. Calixto Basterretxea «Itxas-aurre»k Ibirrixako batek egindako eskaeraren


Parrokiako kanpandorreko kanpaiak.


Txistulariak izara santi egunian.

berri eman zoan (Argia, 1929-04-28): *erregutzeko or gaubaz arrai maniatzen ibiltzen diren oieri beren lana egindakuan ixilik etxera juateko bada beuren uiu ta diarrakin lua galdutzen dutela ta*.

Gabeko Anjelusa jotakuan debekatuta zauan kalian kantuan eta musika jotzen ibiltzia, *despues del toque usual de la campana de queda por las noches, no se perturbará el reposo y descanso publico con rondas de canciones, o instrumentos musicos por la calles* (1867).

Agindu haura ere ez ei zan errez betetzekua Mutrikun. «Itxas--aurre»k (Argia, 1930-09-28) herriko agintarixentzako kexa baten berri eman zoan: *Ez dagola uste det eskubiderik gaubeko amabiak jota gero kalean barrena musika jotzeko eta orren aurretik eta atzetik juan oi diran txoro askoren garraxiak entzuteko, bein ordu ori eldu ezkero ixilik ibiltzeko garaia da*.

Mezia zauan bitxartian Mutrikuko tabernak itxi egin bihar izaten ziran, *que en tiempo de los Divinos ofizios como son misa maior, y bisperas, hasta acavar el rosario, en dias festivos, las taverneras zierren las puertas, de sus tavernas* (1747). Bolo--jokuan ere ezin zeiken ibilli: *Mando no se juegue a bolos mientras se dicen los divinos oficios pena de 4 reales de cada uno* (1804). Karta-jokuan ere ez: *las mugeres que tiene la mala costumbre de estar en medio de la calle y zagoanes jugando a naipes en semejantes horas, causando escandalo y mal exemplo* (1804). Jaiegunetako meza-nagusixan itxitxa egon bihar ziran: *Se cerrarán durante la misa mayor de los dias feriados* (1867).

Kanpaiak

Parrokixan, kanpandorrian, bost kanpai zozen, eta goixan beste bat, *meza-txiliña*. Kanpai bakoitzak bere funtziua betetzen zoan. Plaza txikira ematen doan kanpaiak Santa Maria daka izena eta *Don* ezizena ematen zixuen, halakotxe soiñua zakan-eta. *Hil-kanpaiak* harekin joten ziran. Umeren bat hiltzen zanian, berriz, *aingeru-kanpaia* jotzen zan.

Anjelusak egunian hiru bider joten zoan: goizian (albako mezarako), eguerdixan eta illunabarrian. Askorentzat esnatzeko ordua, bazkalordua eta etxeratzeko ordua markatzen zitxuen hiru joaldi harek.

Su-kanpaiak ere baziran, oso zaratatsuak. Harek entzun ezkero mutrikuarrak saltaka juango ziran bihar zan tokira, laguntzeko prest.

Mutrikuko aguazillen araudixak (1927) ondo zehazten zoan zela jokatu bihar zeuen suteren bat egon ezkero, *siempre que en el distrito correspondiente a él ocurriese algun incendio, avisará primeramente a los vecinos del edificio incendiado (...) pondrá en conocimiento de sus superiores y compañeros para que se repiquen las campanas y presten la ayuda necesaria*.

Parrokiko *meza-txiliña* meza nagusirako jotzen zan, hiru bider: ordu erdi lehenago, ordu laurden lehenago eta meza-orduan. Baiña hori ez zan txilin bakarra, kontsagraziuan hiru txilin joten zitxuan akolitxuak. Eta, baten bat ixa-hillian zauanian, abadia etxera juaten zakonian, bidian ere akolitxuak jotako txilliña entzun zeiken.

Komenduan, lantzian behin, *himnua eta salbia* errezatzen ziran. Hortarako kanpai-hots tristiak jotzen ziran. Harek entzundakuan bazakixan jentiak baten batek laguntza bihar zoana.

Bazozen beste kanpai batzuk ere, konparazio baterako bentalekuan zauana. Hango kanpaitxua jotzen zeuenian erostailliek bazakixen salmentia zauana.

Aste Santua eta gramofonua

Aste Santuan (Eguen eta Barixaku Santuan) ezin zeiken zarataririk atera; kanpaiak ere ezin zeikezen jo. Horren ordez egurrezko *karrakia* edo *karraketia* erabiltzen zan. Batek baiño gehixok oraindik goguan eukiko deu karrakaren soiñua.

Beste alde batetik, herriko ordenantzetan (1897), hau jasotzen zoan 5. artikuluak: *Se prohibe que los días de Semana Santa se golpee en las puertas de los templos y dentro de los mismos con mazos, palos ó cualquiera otros objetos que produzcan ruidos capaces de turbar las ceremonias religiosas ó que molesten á los asistentes á los mismos*.

Gerraurrian Garizuman eta Aste Santuan ez zan egoten musikarik, baiña Mutrikuko errepublikanuen alkartian, arau haura bete gabe, dantzan ibiltzen ziran, beurentzat jarritxako gramofonua lagun zeuela.

Mutrikura lehelengo gramofonuak aillegatu ziranian, halako aparatuak zakezenak, etxeko bentanak zabaldu eta auzokuei ere musikaz gozatzeko aukeria ematen zixuen. Aurrerago, Beheko plazako Rhin faketegixan jarri zeuen gramofonua, eta aurrerago irratixa… Teknologixa berri harek ziharo aldatu zeuen herriko soiñu-pasaijia. Oraintsuago etorri dira mutrikuarren etxietara bestelako aparatuak: telefonua, telebista, mobilla…

Jaixak

Jaixek eten edo geldialdi bat ekartzen zeuen eguneroko eginkizunetan. San Iñazio egunian, esaterako, goizeko 5etatik edo 5:30etatik aurrera diana jotzen zan. 1932. urtian hiru txistulari eta danbor jotzaille bat ibilli ziran.

Iñaki Iriondo «Arno-Mendi» mutrikuarrak honela eman zoan 1926ko Kalbaixoko jaixen berri, *eman dio Uriak asiera bere Kalbarioko Gurutz Donearen jaiari. Suzirien etengabeko danbada zorrotzak, txistularien lenbiziko biribilketa, Erraldoi ta Burutoen agerketa, neska-mutikoen santzo ta iskanbilla: guzti onek ta zerbait geiago ere dakarzki bat-bateko aize boladak nere belarrira*.

Maitxasun berezixarekin gogoratzen ditxugu aspaldiko itxapleruak, San Juan suaren txinpartak, musika-bandaren doiñuak, txistu-danboliñak, prozesiuak, errogatibak, eske-errondak…

Josu Larrañaga Arrieta

MEMORIA ASTEA

AURRENEKOZ INSTITUTUAN

(Gauzak ez dira horrela, gauzak horrela daude)

EUSKAL HERRIAREN HISTORIA IKASGAI

DBH eta Batxilergoko ikasleentzat Memoria Astea antolatu dugu lehendabizikoz martxoaren 18tik 22ra. Iraganarekiko lotura mantentzea eta historiako gertaeren identifikazioa nahiz aitortza egitea helburu duen astea izan da.

Euskal Herriaren historia ikasgaitik prestatu dugu egitaraua. Batxilergoko 1. mailako hautazko ikasgaia da Euskal Herriaren historia, eta maila guztietarako ekintza eta jarduera sorta antolatu dugu. Gerra Zibila, Frankismoa eta Trantsizioa izan ditugu jomuga.

DBH 1, 2 eta 3. mailakoek, Gerra Zibileko erakusketa ikusi eta bisita gidatua jaso dute Institutuan Batxilergoko 1. mailakoen eskutik. Gainera, 4. mailako ikasleek antzeztutako «Gerra Zibila Mutrikun» antzerkia ikusi dute Zabielen gaztetxoenek. Gerra Zibileko ibilbide zirkularraz ere gozatu dute DBH 3 eta 4. mailakoek. Ibilbidean zehar, zenbait testigantza entzun eta horiei lotutako erronkak egin behar izan dituzte. Horiez gain, «Erbestea eta emozioak» (Leyre Arrieta. Deustoko Unibetsitatea) hitzaldian izan dira Batxilergoko 1. mailakoak. Era berean, 1976ko martxoaren 3ko gertakizunak ezagutzera joan dira Gasteizera, Zaramaga auzora, Batxilergoko 2. mailako ikasleak. Bertan, *Martxoak 3 Elkartea*k zuzenduriko bisita gidatua izan dute. Orain artekoekin batera, ikasgeletan, maila guztietan jarduera praktikoak gauzatu dira: Gerraren ondorioak (DBH 1); Saturrarango kartzela (DBH 2); Gerraosteko ikastola klandestinoak (DBH 3); Moda: emakumeak eta janzkera frankismoan (DBH 3); Emakumeen «soldaduska» eta Abestien lanketa (Batxilergoa 1); eta 1936ko gerran Maravillas Lanbertori gertatutakoa landu da gelan Batxilergoko 2. mailan.

Herriko gazteek iraganaren berri izateko egindako lanketaren balorazio positiboa egin dugu antolatzaileok eta eskerrak eman nahi dizkiegu lagundu duten guztiei.







IBARPLAS
leihoaren erreferentzia
Itziarko poligonoa,C5 pabilioia · 20829 ITZIAR · Tel. 943 199226 · www.ibarplas.com · ibarplas@ibarplas.com

JULEN OÑEDERRA

TIRO TXAPELDUNA IKASGELAN

Egileak: Izei Garcia, Beñat Zearra, Matei Murugarren eta Ibai Arakistain

Mutrikuko Institutua

Julen Oñederra Mutrikun jaio zen 2008an eta 16 urte ditu gaur egun. Ehiztaria da eta tiroan ere ibiltzen da Eibarren. Hainbat txapelketa irabazi ditu azken urteetan; azpimarratzekoa da Portugalen 21 urte azpiko kategorian irabazi zuen munduko txapelketa.



Julenek txikitatik jardun izan du ehizan, bere familia ehizazalea zelako eta txikitatik sortu zitzaion berari ere ehizerako grina. Gutxi gorabehera 5 edo 6 urterekin hasi zen ehizan eta urte batzuk beranduago tiro txapelketatan lehiatzeari ekin zon. Aitarekin joaten zen lehenengo txapelketetara, orduan hura baitzen lehiatzen zena. Asko gustatu zitzaion han ikusitako giroa eta lagunartea, eta pozik heldu zion gure ikaskideak ere mundu horretan parte hartzeari. Lehiatzen hastean oso trebea zen tiroan eta beste umeengandik nabarmendu egiten zen; ehiza denbora-pasa hutsa baino zerbait gehiago izango zuela aurreneko unetik ohartu zen.

Julen berak uste zuen baino urrunago heldu da, inoiz ez baitzuen amestu ere egingo hain urrun iristerik. Esan digunaren arabera, aurrez pentsa zezakeen baino askoz ere baliabide gehiago eskaini dio ehizari eta bidaia asko ere egiten ditu urtero, azken hauen artean hamar joan-etorri inguru dira aipatzekoak urrutirakoak izan baitira. Tartean dira osatu dituen bidaiarik luzeenak edo urrunen joan beharrekoak, esaterako, Sevillaraino egindakoa. Baina, ikaragarria izan zitekeen, aipatu digunez, aurten Brasilera joateko aukera izatea nahiz eta ez duen lortu hara joatea.

Esan bezala, lehiatzen 6 urterekin hasi zen baina goi-mailan gutxi gorabehera 11 urterekin hasi zen. Izan duen lorpenik handiena mundu mailako gazteen txapelketa izan da, 21 urte azpikoa, hain zuzen ere. Hala ere, ilusiorik handiena lehen aldiz irabazi zuenean sentitu zuen, ez zelako tirada arrunta izan; kontuan hartu 200 tiratzaile baino gehiago izan zirela harekin batera lehian!

Jarduera honetan gehien atsegin duena ekitaldietan izan beharreko erabateko kontzentrazioa da. Helburua erdietsi nahi duenean oso serio jartzen da. Bestalde, ekitaldi eta txapelketa hauen guztien ondoren, bertaratzen diren lagun zein aurkariekin gozatu ahal izatea aparteko aukeratzat jotzen du Julenek. Elkarrekin egiten dituzten bazkariak eta abarrekoak zinez ditu gogoko.

Etorkizunari begira jarrita, Julenek ehizan jarraitzeko asmoa du nahiz eta horretaz gain beste lanbide batean aritzeko itxaropenik ere baduen. Ogibidea beste bat izanik ere, ez dio nolanahi utziko hainbat maite duen kirolean aritzeari. Julenen arabera, ehiza mundu ez dago bizimodua ateratzeko neurrian garatuta. Handik behar adina diru lortzea oso lan zaila da benetan. Hori ez da, ordea, ikaskide duguna osatu duen bidetik aldaraziko duena. Eutsi, Julen!

Uzuri
RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359



«Pazienteari gorputza ezagutzen lagundu behar zaio»



Ainara Erraiz Fernandez Madrilen bizi den mutrikuarra da. Unibertsitate ikasketak han burutu eta bizitza osoa bertan eraiki du, fisioterapia ardatz moduan hartuta. Zoru pelbikoan espezializatuz, emakumeak laguntzen ematen ditu egunak. Aukera duen bakoitzean, Mutrikura itzultzen da bikote euskaldunarekin eta seme-alabekin.

Aurkeztu zeure burua zaletasunak aipatuz.

Ainara Erraiz naiz, Madril aldean bizi den 44 urteko mutrikuarra, eta nire zaletasun handienak toki berriak bisitatzea, mahai jokoetan aritzea eta mendira igotzea dira, betiere familiakoekin.

Azaldu iezaiguzu noiz eta zergatik erabaki zenuen Mutrikutik kanpo aldentzea, kasu honetan zure ametsa zela medio; eta nolakoa den Madrilen bizitzeko esperientzia mutrikuar batentzat.

Txikitatik nekien fisioterapia ikasi nahi nuela, eta denboraren poderioz Euskal Herrian nire ametsa betetzearen zailtasunak ikusi genituen. Ez nuen kanpora irten nahi, baina aukera ezin hobea nuen Madrileko unibertsitate pribatu batean nire karrera egiteko, eta pauso hori eman nuen. Sekula ez naiz bizi izan Madrileko zentro aldean, betiere kanpoaldeko herrietan bizi izan naiz, kaosetik urrun. Hala ere, aldaketa handia da, hizkuntzaren, egunerokotasunaren eta harremanen aldetik.

Oraindik herriarekin harreman estua duzu, familia eta lagunak hementxe dituzulako. Zein gauza egiten dituzu Mutrikura itzultzean? Eta zeintzuk hartzen dituzu faltan zure egunerokotasunean?

Askotan joaten naiz Mutrikura, eta familia zabala garenez etxean denbora asko ematen dut. *Gurbialde Etxea*n bizi gara, Laranga auzoan, eta leku ikusgarria da. Herrira soilik bueltatxo bat ematera edo lagunekin egotera jaisten naiz. Ez ditut gauza asko faltan hartzen, leku bakoitzera moldatzen naizelako eta badakidalako zeintzuk gauzataz disfrutatu ahal dudan Mutrikun eta zeintzutaz Madrilen. Hori bai, itsasoa eta lagunak hurbilago izan nahiko nituzke.

Mutrikuri dagokionez, non ikasi eta bizi zinen?

Goizeko Izarra ikastolan ikasi eta DBH ikasketak Mutrikun egin nituen. 12 urte bete arte Iriagirreko etxe grisetan eman nuen nire bizitza, eta gero Laranga auzora aldatu ginen.

Kanpoan edukitako ikasketa eta esperientziei esker, gure herrian zerbait aldatzea gustatuko litzaizuke? Zerbait gehitu?

Etapa ezberdinetan, emakumeen mundua gehiago lantzea gustatuko litzaidake. Herriko emakumeek beraien bizitzan gertatzen diren gauzak hobeto ulertzen laguntzea, helduleku izatea. Hilekoaren kontzeptuari buruzko lanketa egitea, sexualitateari buruzkoa, menopausiari buruzkoa… Nire lana horretan datza, eta herriko emakumeak gai garrantzitsu hauen aurrean prestatuta egotea eta informazio egokia izatea ezinbestekoa iruditzen zait. Pentsatzen dut herrian asko lagundu ahalko nukeela gai hauek landuz, emakumeen zaintza sustatuz.

Zure bizitzari lotuta, non hasi zinen lanean eta zertan espezializatu zinen?

Erresidentzia baten lan egin nuen Madrilen, eta baita muineko lesionatuen zentro batean. Hasieran fisioterapia lanak egin

20 urtetan eraikitako eredua mundura zabaldu nahi dut, koloproktologia, ginekologia eta urologian egindako hobekuntzak erakusteko

nituen, errehabilitazioan zentraturik. Denboraren poderioz eta ikastaroak egin ahala, zoru pelbikoan espezializatu nintzen.

Urte batzuk lanean igaro ostean, autonomo bizitzara salto egin eta zure klinika zabaldu zenuen. Zein zen zure helburua? Pozik geratu al zara esperientzia horrekin?

Madrileko kliniketan autonomo izatera bultzatzen zaituzte, ez dizutelako inongo kontraturik egiten fisioterapeuta moduan. Beraz, zentroak beti eramaten zuen portzentaje bat. Espezialitu ostean nire klinika zabaldu eta nire inguruko emakumeen bizitzak hobetu nahi izan nituen. Seme-alabak izandakoan, lasaitasuna eta egonkortasuna behar nuen. Toki batetik bestera ematen nituen egunak pazienteak ikusten, eta nire lana ama izatearekin orekatu nahi nuen. Beraz, klinika zabaldu eta nire ingurukoen bizitza errazten hasi nintzen. Orain nire laneko metodoak eta ikuspegia aldatu eta klinikaren proiektuari amaiera eman diot, ospitaleko lanean zentratuz.

Epe motzera begira, zeintzuk dira zure helburu pertsonalak? Gaur egun ospitale garrantzitsu batean lanean ari zara...

Aurrera begiratzen dut eta konturatzen naiz ordu asko ematen ditudala nire paziente pribatuekin lanean. Hortaz, dibulgazio eta formakuntzan denbora gehiago ematea gustatuko litzaidake, espezializatuen talde batean; eta profesional ezberdinei nire jarduna erakutsi eta gauza berriak irakatsi. 20 urte hauetan eraiki dudan eredua mundura zabaldu nahi dut, koloproktologia, ginekologia eta urologian egindako hobekuntzak erakutsiz. Profesional berriak formatzea eta beraiengan nire zigilua uztea da nire helburua.

Zure eginbeharra hobeto ulertzearren, zein da zure lan egiteko modua? Zein eratara laguntzen dituzu pazienteak?

Irakasle bezala praktikak egin nituen unibertsitatean, nire espezialitatean zentraturik, eta nire ikasleei beti esaten nien ez dugula patologia ezberdinekin lan egiten, baizik eta paziente ezberdinekin. Gizatiartu egin behar dugu gure lana, pazienteari bide bat eraikiz. Gure helburua da pazienteak gure klinikan sartu eta egoera hobeago batean irtetea, mentalki eta fisikoki. Beraien gorputzak ezagutzen lagundu behar diegu, arazo eta kezkak argituz eta ariketen bidez segurtasun falta landuz. Teknika ezberdinekin, beraien bizi kalitatea hobetzea da gure eginbeharra.

Urruti zaude eta mutrikuarrek agian zureen antzeko zerbitzuak kontsumitu nahi dituzte. Euskal Herrian nola lantzen da zure espezialitatea? Etorkizunean Mutrikun aukera hau izan ahal izango dugu?

Kide batzuk ezagutzen ditut Bilbo eta Donostia inguruan, zoru pelbikoa lantzeko klinika pribatuak dituztenak. Asteburuetan ikastaro desberdinak antola litezke, kasu ezberdinak ezagutzeko eta herritarrek nik egiten dudana ulertu ahal izateko. Pertsonalki gorputz bakoitza aztertu eta bizitzako hainbat egoeratarako hobekuntzak lortu, gure esku dauden aurrerapenak lortuz. Pelbis inguru horretan hainbat arazo sortzen dira, eta horiek hobetzeak eta gure buruarekiko konfiantza handiagoa izateak egunerokotasunean eta sexualitatean asko lagundu ahal gaitu.

Zure lana alde batera utzita, badakigu semea eta alaba-dituzula. Zer-nolako balore euskaldun eta mutrikuarrak erakutsi dizkiozu bi gazteei? Mutriku gustatzen zaie?

Iker eta Iria erdi mutrikuarrak dira. Mutrikura joatea eta lehengusuekin egotea oso gustuko dute, familia giroaz asko gozatzen dute eta hondartzara joatea maitatzen dute. Lagunak egin dituzte bertan, eta Mutrikuko jaietan bere saltsan ibiltzen dira, danborradako kantuak buruz ikasiz eta euskara gero eta gehiago landuz. Kuriositate moduan, euskara batua baino mutrikuarra gustatzen zaie, argi eta garbi.

Amaitzeko, Mutrikuri buruzko test azkar bat egingo dugu:

Malenak ala Kalbaixuak? Kalbaixuak.
Arnora igo ala Kalbaixora? Kalbaixora.
Igerileku berria ala zaharra? Betiko pistina, zaharra.
Leku onena lagunekin zerbait hartzeko? Portuko kantina edo Ametza.
Plan hoberena Mutrikun egiteko? Atxukalen jarri eta portuko mugimendua ikusi.
Mutrikuko zure lekurik gustukoena? *Gurbialde*, Larangako nire etxea.



Eneko Erraiz Amado

....ZORIONAGURRAK....



GAIZKA

Zorionak Gaizka!!! Martxoaren 27an bederatzi urte betetzen dituzulako. Ondo-ondo pasa zure egunean eta Mila muxu potolo etxekoen partez.



ALIZE

Guraso, aiton-amona eta batez ere anaia Peioren partez, mila zorion zuretzat!



JULE

GURE etxeko txikiari muxu haundi bat. Beti bezela jarraitzeko irrifar polit horrekin.Zorionak Jule! Aitxona Joxe Angel eta Amona Itziar.




IGOTZ

Martxoaren 6an bederatzi urte handi egin zenituenez zorionak eta matxo haundi bat familiko danon izenean. Ondo pasatu genuenez, hurrengoan berriz!



ENARA

Zorionak Enara, apirilaren 21an 9 urte haundi betetzen duzulako. Muxu erraldoi bat familixan partez ta bereziki zure aman partzez.



GORKA

Zorionak!!! 10 urte haundi bete dituzu apirilak 24an. Muxu haundi bat etxekoen partez.




OIHAN

Zorionak, Oihan! segi barre politx horrekin musu pilo-pilo txapeldun, atxona eta amonan partez.



ILARGI

Gure etxeko Marimotots! Apirilak 18xan bi urte beteko ditxuzu. Zorionak txiki!



ALAIA

Apirilaren 6an 6 urte! ZORIONAK gure etxeko sorgintxuari eta matxo potolo bat denon partez



INHAR

Zoriooonak, zuri! gutxi geratzen zaizu laugarren pisura igotzeko eta, bidea on-ona izan dadila! Muxu haundi bat zure neskatxuen partez!




NAHIA, ENARA eta EKAITZ

Apirilaren 16an eta 21ean urteak betetzen dituzuelako Zorionak zuen familixan partez eta bereziki Suharen partez!

ZORIONTZEKO eta ARGAZKI ZAHARRAK ERAKUSTEKO

aldizkaria@kalaputxi.eus

whatsapp 635748393



ANSORREGI oinetakoak

erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

Argazki Zaharrak



XX. mende hasieran emakume mutrikuarrak eskabetxean.



1969 urtean
Tente: Jose Angel Arreitunandia, Bittor Juan Arizmendi, Fran Lekunberri,
Kukulumutxu: Jabier Goenaga, Ramon Basurko eta Pedro Basterretxea

2024ko farmazia guardiak

APIRILA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
22 Apraiz	23 Apraiz	24 Apraiz	25 Apraiz	26 Lasuen-Ele	27 Lasuen-Ele	28 Lasuen-Ele
29 Zalduegi	30 Zalduegi					

MAIATZA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

		1 Zalduegi	2 Zalduegi	3 Burgoa	4 Burgoa (2)	5 Burgoa
6 Lasuen-Elez	7 Lasuen-Elez	8 Lasuen-Elez	9 Lasuen-Ele	10 Apraiz	11 Apraiz	12 Apraiz
13 Burgoa	14 Burgoa	15 Burgoa	16 Burgoa	17 Zalduegi	18 Zalduegi (1)	19 Zalduegi
20 Apraiz	21 Apraiz	22 Apraiz	23 Apraiz	24 Lasuen-Ele	25 Lasuen-Ele	26 Lasuen-Ele
27 Zalduegi	28 Zalduegi	29 Zalduegi	30 Zalduegi	31 Burgoa		

EGUNEKO GUARDIA ZERBITZUA
09:00 - 22:00
Larunbat goizetan 09:30-13:00
Igande goizetan 11:00-13:00

Lasuen-Elezgarai.....626 611 392
Lon Apraiz.....630 055 097
Hiart Burgoa (Deba) 667 338 890
Amaia Zalduegi (Deba)... .669 262 201

GAUEKO GUARDIA ZERBITZUA
22:00 - 09:00
Mikel Lekunberri Alberdi...943 20 42 30
Isasi 31, 20600 Eibar

AGENDA

.....APIRILA.....

23 · 17:15 Liburutegia — Ipuin galduak (Mikel Susperregi)
24 · 17:30 EMAgunea — Gizonak parekidetasunerantz
25 · 17:30 Liburutegia — Ipuin kontalaria
· 17:30 EMAgunea — Bizikletak konpontzeko ikastaroa
26 · Ikusgarritasun lesbikoaren nazioarteko eguna
· 16:00 Liburutegia — KZgunea: BAKQ ziurtagiria
· 18:00 Liburutegia — Ligoteo eta sedukzio tailerra (16-24 urte)
· 19:00 Zabiel — Edorta Jimenezen liburuaren aurkezpena
28 · 19:00 Zabiel — «Eukalyptus» antzezlana
29 29 · 16:00 Liburutegia — Tramiteak online Osakidetzarekin
30 · 18:00 Zabiel — Mugak haurtzaroan (2. saioa)
Apirilaren 19tik Maiatzaren 5era Bono kanpaina
30 · 18:00 Zabiel — Mugak haurtzaroan (2. saioa)

.....MAIATZA.....

1 — Langileen Nazioarteko Eguna
2tik 9ra · EUSKARAREN ASTEA
9 · 18:00 Zabiel — Nerabeen garrasia liburuaren aurkezpena
10 · 19:00 Zabiel — Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen faseko kanporaketa.
13 · Beheko plazan — Merkatu txikia (artile mozketa erakustaldia)
14 · 18:00 Zabiel — Mugikorrak eta interneten erabilera lehen hezkuntzan
17 — LGTBIQ+fobiaren aurkako nazioarteko eguna
21 — Kultur aniztasunaren Nazioarteko Eguna
26 — Gipuzkoako Orientazio Liga

BISITA GIDATUAK

· Zazpi hondartzak · Mutriku marinela ·
· Olatu planta · Nautilus, Flyscheko fosilak ·
· Arrietakua jauregia ·

Egunak, ordutegiak eta hizkuntza kontsultatzeko:
Turismo bulegoan edo www.geoparkea.eus helbidean

aldizkaria@kalaputxi.eus
whatsappa 635748393
apirileko aldizkarian
argitaratzeko
maiatzaren 10erako
bidali zuen mezuak

MENDI-IRTEERAK 2024

Apirilak 28
Euskal Mendi Federazioaren "Ehun urte, Ehun mendi":
Markina – KANPANZAR (629 m.) – Deba

Maiatzak 19
Zubieta - Loitzate - Zubieta. (Aurrera M.T.)

Ekainak 2
Arnoko XVIII. Mendi Ibilaldia (Burumendi M.T.)
Antolatzaileak: Burumendi, Aurrera, Burdin Kurutz eta Artibai Mendi Taldeak.

Ekainak 21, 22 eta 23
Pirinioak (Carretón de Ip, Pico de la Moleta, Ibon de Iserias, Valle de Izas, Canfranc, Col de Somport, Pic de Arnousse, Pic de Belonseiche, Ibon del Escalar, Astun)

ODOLA EMATEA 2024
ekainak 21

· abuztuak 23 · urriak 18 · abenduak 20 ·

17:00etatik 20:30ak arte anbulatorioan

Gipuzkoako Odol Emaileak

PAUSO

PODOLOGIA KLINIKA

KIROPODIA, PLANTILAK,
AZTERKETA BIOMEKANIKOA,
KIRURGIA, KIROL PODOLOGIA,
OIN DIABETIKOA...

943 01 49 05 - 747 43 48 52
Astillero Kalea 2 behea, Deba



PODOLOGIA KLINIKA BERRIA DEBAN



ArmeriaEskola[x]

EGIN

AURREMATRIKULA!

Aukerarik onena, etorkizuna duena!

MATRIKULA ZABALIK

APIRILAK 22tik MAIATZAREN 10era

matrikulatzeko, deitu haurreskolara

Zuen zain izango gara!









Mutrikuko Haurreskola

Haurreskola txikia, familia handia

943 60 41 19
mutriku.mutriku@haurreskolak.eus
www.haurreskolak.eus

HaUrreSkoLak